



**IRIZPEN ZK.: D18-007**

**UDALAK ANTOLATUTAKO EKITALDI PUBLIKO BATEAN HARTUTAKO ARGAKZIAK  
CD BATEAN GRABATZEA, ERAKUSTEA ETA ARGITARATZEARI BURUZKO  
IRIZPENA**

**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA:** [...] Udalak irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Eskabide-idazkiak baieztatzen du Udaleko kultura arloak urtero-urtero antolatzen duela Gabonetan Olentzeroren inguruko ekitaldia, eta publiko guztiarentzat dela, batez ere adingabeentzat. Kontuan hartuta ekitaldia toki publiko irekian egiten dela eta parte hartzea ere irekia dela, eta ez dela alde aurretik izenik eman behar, eskatu nahi dugu txosten bat, jakiteko ez legezkoa den bertan parte hartzen duten pertsonen argazkiak ateratzea, CD batean grabatzea eta argazkiak erakustea edo argitaratzea interesdunen berariazko adostasunik gabe, kontuan hartuta gehienak adingabeak direla.

**BIGARRENA:** Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.*

Beraz, araudia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

**KONTUAN HARTZEKOAK**

**I**

Gure irizpena eskatu duen kasua aztertzeko, lehenengo eta behin esan behar dugu Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 3. artikulua dioela zer den datu pertsonala, eta datu pertsonalaren kontzeptuaren definizio hau ematen du:

*“Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri buruzko edozein informazio”.*

DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 5.1 f) artikulua zabaltzen du aurreko definizioa, eta xedatzen du *“datu pertsonala dela pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri buruzko edozein informazio (zenbakizkoa, alfabetikoa, grafikoa, fotografikoa, akustikoa edo beste edozein motatakoa)”*.



Gainera, Erregelamenduko 5.1 o) artikulua pertsona identifikagarria zer den zehazten du: *“Bere nortasun fisikoari, fisiologikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko edozein informazioren bidez zuzenean edo zeharka identifika daitekeen pertsona oro. Pertsona fisiko bat ez da identifikatzeko modukotzat joko baldin eta identifikatzeko proportzioz gaindiko epeak edo jarduerak behar badira”.*

Aipatu ditugun lege aipamen guztiek xedatutakoaren arabera, pertsonen irudia datu pertsonala da. Edozelan ere, datuak babesteko oinarritzko eskubideari buruzko araudia ezartzeko, datu tratamenduren bat egon behar da lehendabizi.

DBLOren 3. artikuluko c) letrak datu pertsonalen tratamendua zer den definitzen du eta zera dio: *“automatizatutako edo automatizatu gabeko eragiketa eta prozedura teknikoak, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzietatik ateratako datuak biltzea, grabatzea, gordetzea, prestatzea, eraldatzea, blokeatzea, ezereztea eta lagatzea ahalbidetzen dutenak”.*

Oinarritzko eskubidea babesteko, datu pertsonalen tratamenduren bat egon beharko du nahitaez, bestela, ezin da egon lege urraketarik. Datu tratamenduaren kontzeptuari helduz, esan dezakegu jarduera kulturalak edo kirol jarduerak egiten edo ikusten ari diren pertsonen irudiak grabatzea datu pertsonalen tratamendutzat jo behar dela, eta, beraz, DBLOk xedatutako baldintzak bete beharko direla.

## II

Datu tratamendu bat dagoela baieztatu eta gero, aztertu behar da ea zein den tratamendua legitimatzen duen lege oinarria.

DBLOren 6.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, esan dezakegu *“datu pertsonalak tratatu ahal izateko, ukituaren adostasun argia beharko dela, legeak bestelakorik xedatu ezean”.*

Hala ere, adostasuna behar dela dioen arau orokorra zehaztu egin behar da, kasu bakoitzaren inguruabarren arabera. Inguruabarrak zein diren 1/1982 Lege Organikoak arautzen ditu, bertan daudelako jasota bidegabeko esku-hartzeak, ohoreari, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudiari dagokienez. Hona zazpigarren artikulua xedatzen duena:

*“5. Norbaiten irudiak jasotzea, erreproduzitzea edo argitaratzea, argazki, film edo beste edozein prozeduraren bidez, pertsona horren bizitza pribatuko toki zein uneetan, edo horietatik kanpo, 8.2 artikuluan ezarritako kasuetan izan ezik.*

Zortzigarren artikulua xedatzen du norberaren irudirako eskubideak ez dituela honakoak eragotziko:

*a) Edozein bide erabilia pertsonen irudiak jasotzea, erreproduzitzea edo argitaratzea, pertsona horiek kargu publikoa edo entzute handiko lanbidea nahiz garrantzi publikoa dutenean, eta irudiak jasotzen direnean ekitaldi publikoan edo jendaurrean zabalik dauden tokietan.*

*b) Pertsona horien karikaturak erabiltzea, gizarte-usadioekin bat etorriz.*

*c) Gertaera edo jazoera publiko baten gaineko informazio grafikoa, pertsona jakin baten irudia bigarren mailako gisa agertzen denean”.*

Guri interesatzen zaiguna da c) letrak dioena. Kontsulta-idazkian aipatzen diren irudi asko hor sar daitezkeelako. Kontuan hartuz gero, c) letrak dioena, ez da ukituaren adostasuna



eskatu beharrik izango, adingabeak izan zein ez izan, irudia hartzen bada gertaera edo jazoera publiko baten gaineko informazioa emateko, eta adingabearen irudia bigarren mailako gisa agertzen bada. Kontrakoa, argazkiak tratatzeko, baina pertsonen irudiak osagarriak ez direnean (hau da, ume baten lehenengo plano bat adibidez), adostasuna beharko da.

Irudia bigarren mailakoa den kasu batean, zera adierazi zuen apirilaren 7ko Auzitegi Gorenaren 220/2014 Epaiak: *“Salak gai honi buruzko doktrina ugari du, eta kontuan hartzen du pertsonen irudiak izaera osagarria duela idatzitako testuarekiko edo argazkiaren edo fotogramaren testuinguruarekiko, eta dio irudia osagarria dela elementu nagusia ez denean, argazki hori egotea ez delako funtsezkoa eta ez duelako zer ikusi zuzena kaptazioaren edo proiektzioaren objektuarekin, eta ukituaren izen ona edo ohorea kaltetzen ez badu; hala ere, dotrina hori gertakari publiko bati lotuta dago”*.

Adingabeez berariaz ari dela, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren martxoaren 15eko 2/2006 Instrukzioak honakoa azpimarratzen du: *“adingabeak eta komunikabideak gizartearen eta ohiko bizitzaren parte dira, eta adingabeen ohoreak, intimitateak eta irudiak behar duten babes bereziak ez du esan nahi adingabeak esparru horietatik atera behar direnik. Gainera onartu behar da kasu batzuetan ez dela beharrezkoa adostasuna adieraztea edo baimena ematea, esate baterako, adingabeen eskubideetan duen eragina hutsala denean, eta, gizarte ohiturak kontuan hartuta, esan badaiteke adingabeen irudia edo zenbait datu hedatzeak ez diela kalterik egingo haien interesei”*. Instrukzioak dio oso adierazgarria dela Valentziako Probintzia Auzitegiko Sekzioaren otsailaren 13ko 86/2002 Epaiak dioena: *“herritarren parte hartze handiko ekitaldi batean bide publikoan hartutako adingabearen irudia erabiltzea ez da adingabearen irudiaren aurkako eraso bat, alde batetik, fotometrajeak errespetatu egiten duelako adingabea; ... eta, bestetik, parte hartze handiko ekitaldi batean hartu dutelako irudia, argi utziz irudi osagarria dela, segundo batzuk baino ez baita agertzen irudia, eskaintzari buruzko atalaren aurkezpenean; gainontzeko ataletan bezalaxe, atalaren edukiari buruzko fotometraje alegoriko bat egin da aurkezpen gisa... Epaitzen ari garen kasuak ez ditu eskubidea urratu dela esateko gutxieneko baldintza betetzen, hain zuzen ere, adingabearen irudia bide publikoan hartu zelako, falletako ekitaldietan parte hartzen ari zela...”*.

Irizpenean azaldutako gogoeta guztiak ikusita, ondorioztatu behar dugu kasuz kasu baloratu beharko dela gatazkan dauden ondasun juridikoen artetik zein gailentzen den, kontuan hartuta datu tratamendu bakoitzaren inguruabarrak, eta erabakigarria izango da argazkiak osagarriak dien ala ez.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 11